mundukide
kooperazio kooperatiboa
cooperación cooperativa

Zarugalde, 30
20500 Arrasate-Mondragón (gipuzkoa)
Tel.: 943 772 010
e-mail: mundukide@mundukide.org

www.mundukide.org

41 zk. Martxoa *Marzo* 2019

Buletina
mundukide

# Etiopia eta Malawi, Afrikako programa berriak



2018ko azken hilabeteetan Mundukide Fundazioak Afrikar kontinentean lankidetza proiektu berriak irekitzeko herrialde ezberdinen arteko aukeraketa eta identifikazio prozesua landu du. Erakundeak, 20 urtetan Afrikan egindako lanaren esperientzia eta ezagupena aprobetxatu nahi ditu Malawin eta Etiopian bi proiektu berri garatzeko.

Helburua, epe luzeko bi proiektu berri egitea litzateke, ahalik eta familia kopuru handienera iritsiko dena eta eskualdeko nekazal garapena bultzatuko duen proiektu iraunkorra izango dena. Horretarako 2019an, herrialdea hobeto ezagutzeko esperientzia pilotu bat martxan jartzera goaz bertako erakundeekin elkarlanean, behin 2020an, hedadura handiagoa izango duen proiektua garatu ahal izateko.

# HUMANITY AT MUSIC proiektu solidarioa




Esperientzia Kooperatiboaren sinfonia aurkeztuko duen ikuskizuna da Humanity at Music. Otsailak 22 eta 23an Arrasaten hasita, MONDRAGONen historia, oraina eta etorkizuna kontatzeko modu berri bat ikusteko aukera izango dugu Euskal Herriko herri eta hiriburu ezberdinetan. Irailaren 14ean, berriz, Gasteizko Buesa Arenan egingo da ekitaldi nagusia. Berritzailea, musikala, literarioa eta oso bisuala izatez gain, Humanity at Music proiektu solidarioa ere bada Mundukiderekin, Fundazioa proiektu berezi honen parte eginez. Humanity at Music proiektuak, ilustrazio zoragarriz betea eta hiru hizkuntzatan dagoen liburua ere kaleratu du. Liburuak, herriz herriko ikuskizunetan, Eroski eta Elkar dendetan eta **www.humanityatmusic.org** eta **www.mundukide.org** helbideetan erosi ahal izango dira. Saltzen den liburu bakoitzeko, euro bat Mundukideko proiektuetara bideratuko da.

# Mundukide y la Igualdad de Género



**Mónica Gago García**
Representante de MU en el patronato de Mundukide

Que Mundukide tenga una apuesta clara por la igualdad de género no es discutible. Como organización no gubernamental, entre sus principios y valores no cabe la realización de acciones no igualitarias, y como parte de la experiencia cooperativa de MONDRAGON, no se acepta ningún tipo de discriminación basada en el género. En este marco, durante el pasado año 2018 hemos dado un nuevo impulso al tema de la igualdad con la elaboración del Plan de Acción Pro Equidad de Género 2018-2021, cuyas raíces se encuentran en el primer plan de género del año 2011.

El plan que acabamos de realizar es el más ambicioso de los últimos años. Plantea cambios organizacionales, estructurales y operativos en Mundukide con el horizonte de convertirse en una entidad promotora de la equidad de género. El objetivo del plan es el de implementar los cambios necesarios para que la transversalización del enfoque de género no sólo sea palpable en la sede de Arrasate, si no que se visualice en todos los programas que tenemos en nuestros proyectos de desarrollo en países del Sur. Un paso más para que Mundukide acompañe a la sociedad en esa búsqueda constante de la igualdad de género en todas las dimensiones posibles.

# 20 urteko esperientziak hegalak eman dizkio Mundukideri mundura zabaltzeko




2018-21 Plan Estrategikoan adostu genuen moduan, Mundukideren lana etengabe ari da multiplikatzen munduan barrena.

2018an **Mozambike**n, seigarren programa ireki zen Niassa probintziako Mitande distrituan. Brasilen, sei estadutako erakundeetan ari gara lanean eta zazpigarrena bidean da. Gutxi bada ere, **Kolonbia**ko programa berriari hasiera emanez agurtu genuen urtea.

Mundukideko programez gain eta fundazioko boluntarioei esker, **Mexiko**ko kooperatibetan izan dugu presentzia eta **Kenya**n ere aritu gara, Mondragon Unibertsitateak sustatutako Afrika Basque Challenge proiektuaren barruan ekarpena eginez. 2019ko lehen sei hilabetean **Ekuador**ren lanean hasiko gara. Eta baita kontinente afrikarreko **Malawi** eta **Etiopia**n.

Hogei urteko ibilbidearen ostean, Mundukide garapen lankidetza alorrean osasuntsu eta esperientziadun agertzearen arrazoi nagusienetarikoa, pertsonen inplikazioarekin batera, enpresa, kooperatiba eta era askotako erakundeen arteko interkooperazio lana izan da.

Aurrerantzean ere, munduko pertsona guztiok bizitzaren eta lanaren jabe izan gaitezen jarraituko dugu lanean.

## Laburrak

Mari Luz Tomé es la nueva representante del colectivo de voluntarios/as de Mundukide. Entre las funciones a desempeñar destacan la participación en el Patronato y Comisión Delegada de la Fundación y la de dar cauce a las necesidades de formación, información o de que cualquier otra naturaleza del colectivo.

**Mari Luz Tomé López**
Representante de personas voluntarias de Mundukide



Alberto Trojaola ha pasado el relevo a Mari Luz Tomé después de representar durante 4 años al colectivo de personas voluntarias de Mundukide. Tras 15 años de voluntariado conoce muy bien la fundación bien por su labor administrativa en sede como por la desempeñada en el antiguo programa de Guinea Ecuatorial como cooperante.



**Alberto Trojaola Larrea**
Voluntario de Mundukide

Komunikazio arloan arituko den lantaldeko kide berria da Andoni. Bergararra da eta ikus entzunezko gradua Mondragon Unibertsitatean ikasitakoa, orain Debagoienako mankomunitateko Hazilan ekimenaren bitartez heldu da Mundukidera. Ongi etorri Andoni!

**Andoni Mugica Lopez**
Komunikazio arloko praktikagilea



# El concurso Africa Basque Challenge ya tiene propuestas ganadoras



*El concurso ABC "Mind the gap", es un programa que pretende fomentar el desarrollo de iniciativas socio-empresariales que promuevan un desarrollo inclusivo de las comunidades rurales y contribuyan a reducir las desigualdades entre lo urbano y lo rural.*

MUNDUKIDE, LKS, Mondragon Team Academy, PLO Lumumba Foundation, The Management University of Africa y Freedom Farms Limited junto con la Diputación Foral de Bizkaia y la Agencia Vasca de Cooperación al Desarrollo, entre otros, colaboran para promover nuevas realidades socio-empresariales co-creadas por jóvenes que colaboran de manera intercultural.

En esta primera edición del ABC, ya que nace con vocación de repetirse en años próximos, el tema elegido para el desafío Africa Basque Challenge (ABC) "Mind the gap", es el desarrollo de iniciativas socio-empresariales digitales que contribuyan a reducir las desigualdades entre lo urbano y lo rural.

Los participantes, 20 jóvenes de Euskadi y 20 de Kenia han estado co-creando en 11 equipos interculturales y para elaborar las propuestas con mayor impacto social sostenible. Las/los jóvenes seleccionadas/os han entrado en un proceso de emprendimiento subvencionado para co-desarrollo en Nairobi y Bilbao. Este ejercicio de co-creación en equipos mixtos de personas de Kenia y de Euskadi redefine las relaciones norte sur desde la igualdad y con el objetivo de la superación de la brecha de desigualdad "mind de gap".

El proceso comenzó con un encuentro a finales de noviembre en Nairobi (Kenia) donde, además de formaciones, presentaciones, dinámicas y visitas a empresas interesantes, se constituyeron los equipos y esbozado los proyectos. A mediados de febrero, se ha realizado otro encuentro en Bilbao donde los equipos han tenido que culminar sus propuestas y hacerlas atractivas, o aún mejor irresistibles, ante un jurado compuesto como un panel de potenciales inversores que las valorarán.

### Colaboración de Mundukide

Adrián Lamas, responsable de los programas en África e Iñaki Aranburu, voluntario de Mundukide han participado en la gestación del proyecto y organización de los dos encuentros. A raíz de su participación la labor de ambos ha consistido en el acompañamiento de algunos de los 11 equipos interculturales constituidos, al mismo tiempo que recabar información sobre las posibilidades de cooperación en países de África.

El proyecto ganador de 15.000 € se llama HOCO y propone utilizar materiales de construcción a partir de residuos de coco. En segunda posición han quedado, ATM: Procesado agroindustrial para colectivos de agricultores de Cassava, VAA: calzados realizados con pieles de pescado que hasta ahora se desecha y MOVAKI: brickets hechos de cascara de arroz para sustituir al carbón de la cocina rural keniana. Todos contarán con el acompañamiento de un consultor experimentado durante 6 meses y gozarán de 1 año de cursos de emprendimiento online esponsorizados por IBM.



# Kooperazio koooperatiboa Mexikon

## Oaxaca estatua



*Izaskun Bildarratz Sorronek eta Iñigo Gomez Udaondok –Mexikon borondatezko kooperanteak biak ere– azken bi urteetan kooperazio kooperatiboaren arloan Mundikiderekin bizi izan duten esperientziaren berri eman digute.*

Iñigo eta biok geneukan gogoa gure ibilbide profesional osoan egindakoak baino zentzu humanitarioagoa izango zuen zerbait egiteko, eta gure esperientzia aprobetxatzeko. Hala, boluntario gisa aurkeztu ginen Mundukiden, guretzako aukerarik sortuz gero, gu prest egongo ginela jakin zezaten.

Misioa 2017an sortu zen aukera. Mexikoko Ayuda en Acción GKEak laguntza teknikoa eskatu zion Mundukideri ekonomia solidarioari buruzko prestakuntza programa bat lantzeko (ECOSOL). Lankidetza horren lehen urtean 4 hilabeteko egonaldia egin genuen Oaxacan, batetik, inguruneko kooperatiba hasiberriak aztertzen eta, bestetik, Ayuda en Acción-ek behar zituen prestakuntza moduluak osatzen.

Orain, gure Misioa, inguruko komunitate oso behartsuei laguntzen ahalegintzen diren GKE txikietako pertsonak prestatzea eta lagun egitea da eta kolaborazio eremuetako egitasmo hasiberrietan lankidetzan jardutea. Kontua da hangoek ezagutza teorikoak nahiz praktikoak hartuz joatea beren jardueretan, hala kooperatiba nola enpresa gaietan, eta hola, lehendik zeuden egitasmoak indartzea eta egitasmo berrien sorkuntza ahalbidetzea.

### Esperientzia %100 gomendagarria

Hasieran frustrazioa sentitu genuen, zaila baita aurrera egitea, eta oso mantsoa. Ondoren, herrialdea ezagutuz eta gure pausoak errealitate hartara egokituz joan ginen. Oro har, uste dugu poliki-poliki ari garela pertsonei begiak irekiarazten zenbait aspekturen aurrean, esaterako, printzipio kooperatiboen inguruan eta kudeaketa gaien inguruan. Horri esker, bidean aurrera egin ahala, frustrazio sentimendua ilusio eta konfiantza sentimendu bihurtu zaigu. Nabarmentzekoa da, oso desberdinak eta aspektu guztietan oso aberatsak diren pertsona eta kulturekin kontaktuan egoteak norberari ematen dion aberastasun pertsonala. Horren erakusgarri dira Mexikon dauden 364 hizkuntza aldaerak, 68 hizkuntza indigenari lotuta daudenak, horietako asko galtzeko bidean.

Oso aberasgarria da guretzat errealitatearekiko kontaktua; desberdintasun sozial handiak daudela jakiteak eta ikustea eremu batzuk erabat babesgabe daudela ikusteak, gobernuak oso peso gutxi inbertitzen duela bertan, edo enpresa handien menpe daudela ikustea. Zure gauzen aldean oso bestelakoak diren gauzak ikusten dituzun aldiro gertatzen den bezala, konparatu eta baloratu egiten duzu. Zeuk daukazun eta besteek ez duten hori guztia baloratzen duzu; edo alderantziz, eurek daukaten eta gu galtzen ari garen hori, esate baterako, oso gutxirekin zoriontsu izatea.

Horregatik, esperientzia hau ehuneko ehunean bizitzea gomendatuko nuke. Zalantza barik. Oso aberasgarria da norberarentzat. Beldurrak uxatu behar dira; animatu eta guk ikasi ahal izan dugun eta buruan daukagun guztia eraman behar diegu behartsuenei, eta gure bihotzaren bidez partekatu.

